

# 13-11-2022

La Vega ya no es la Vega  
La Vega es medio Madrid.  
Antes tenía el camino viejo  
y ahora el ferrocarril

PR-S-75 ibilbidea egingo dugu Cantabrian, Yera eta Ajango ibai ertzetatik doan bide zirkularra.

Valles Pasiegos eskualdean murgilduko gara, Pas ibaia eta inguruko basoak ezagutzeko.

Kotxea Vega de Pasen utziko dugu, eta hasteko, hego-ekialderantz ibiliko gara, CA-631 errepidea, bidexkak zein pistak jarraituz.

Bost kilometro bete ondoren bidegurutz batera helduko gara. Eskuman dagoen bidea hartuko dugu Ajan erreka jarraitzeko. Bizpahiru kilometrotan trokak, ur-jauziak, hurritzak, gorostiak, lizarrak... disfrutatuko ditugu.


Gero, erreka zeharkatu eta ekialdera abiatuko gara, bide aldapatsu baina laburra igoko dugu Santander-Mediterraneo trenbidea topatu arte. Hondatuta dauden barrakoen aurretik pasatuko gara.

Bertatik, El Majoral tunela zeharkatuko dugu La Engaña tunelera heltzeko (inauguratu gabe geratu zen, eta estatuko tunelik luzeena izan zen denbora luzez, 6976 metro)

Behin ikusita, iparralderantz itzuliko gara, trenbidea jarraituz hiru tunel gehiago zeharkatuko ditugu: El Empeñado, El Morro eta El Morrito. Yerako geltokira ailegatu arte.

300 metro aurrerago hartuko dugu bueltarako bidea, mendebalderantz eta Yera ibaian behera jarraituz Ajan erreka bidegurutzeraino. Handik hasierako bost kilometroak beteko ditugu Vega de Pas-era itzultzeko.

MAPA IREKI



[Tracka deskargatu](#)

EGURALDIAREN IRAGARPENA egunero gaurkoratuta.

Compártelo:

[Click to share on Twitter \(Opens in new window\)](#)

[Click to share on Facebook \(Opens in new window\)](#)

## DATU TEKNIKOAK

Jarduera mota Egun bakarreko irteera zirkularra oinez.

Kokapena

Metatutako desnibela +350 / -350

Luzera 17 Km

Jardueraren iraupenaren aurreikuspena

## Elkartzeko tokia eta ordua

8:00 Gailurraren egoitzan

## Ibilbidearen hasiera eta bukaera

Vega de Pas

## Irteerarako izena emateko azken eguna

10/11/2022

## Jakin beharreko kontu teknikoak

## Prestakuntza fisiko beharrezkoa

## Material tekniko beharrezkoa

Sasoi honetarako oinetako eta arropa egokiak. Makilak. Frontala. Ura

## Bestelako oharrak

Historia apur bat: [LINK](#)

## Argibide gehiago

Emalez (beatrizcabo abildua hotmail puntu com)

